


# *ttipi-ttapa*

1991.eko Martxoak 21

58. zenbakia

dohain banatzen da



**Baztango**  
**Gasna Kooperatiba**



## INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna  
Tfnoa: 45 15 18  
Doneztebe

### ORONOTZ- MUGAIRE

- 90 m<sup>2</sup>ko pabeloi industrialia, familia-negoziotarako egokia, 6 metrotako altuera, bulego eta komunekin, estreinatu gabea. 5.500.000 pztatan.

### EZKURRA

- 200m<sup>2</sup>ko 3 solairudun etxea herrian bertan. Baratzea eta bista ikusgarriak. Prezioaz, hitzeginen dugu.

### ITUREN

- Borda Mendaur inguruan, 600.000 pezetatan.

### OIEREGI

- 150 m<sup>2</sup>ko etxea estreinatzeko, 52 m<sup>2</sup>ko garajea eta 300 m<sup>2</sup>ko baratzaekin, 14.500.000 pztatan.

### LEGASA

- 130m<sup>2</sup>ko pisua, 40 m<sup>2</sup>ko garajearekin, terraza zabala rekin, egurreko kalefakzioa. Prezioa hitzegiteko.

### NARBARTE

- Karretera ondoan 90 m<sup>2</sup>ko pisua, 20 m<sup>2</sup>ko garajearekin estreinatzeko, 6.200.000 pztatan.
- **Laister**, 3 pisu eta behe-komertzialen eraikitzea Herriko Etxearen aitzinean. Prezio oso eskuragarriak.

# BORTZIRI



«UNSION ANAIK»

## ERAKUSKETA

**BEREAU ETXEA**  
Lesaka - Nafarroa

Tfnoa: (948) 63 72 66

## SUKALDERAKO ALTZARIAK



**Zatoz ikustera!**  
**Presupuestoak, loturarik gabe**

# non-zer

- 
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/21** **HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 22** **ERREPORTAIA:** "Baztango Gasna Kooperatiba: Merkatua ikusirik, kalitate oneko gasnaren aldeko apostua da geurea"  
Joxemanuel Irigoien
- 
- 24** **ELKARRIZKETA:** "Bortzirietako Euskaltegiak proiektu berri bat du eskuartean" Mikel Legarrarekin solasean.  
Patxi Larretxea
- 
- 26** **KIROLAK:**  
Mattari, Lesakako Arkupe Pilota Elkartea.
- 
- 28** **OSASUNA:** "Senda belarrak: Intsusa"  
Alberto Iturbe
- 
- 29** **HEZKUNTZA:** "Haur heziketa"  
Lamia Taldea
- 
- 30** **MERKATU TTIKIA**
- 
- 31** **DENBORAPASA**  
Enbido
- 

## *ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 4.200 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldúa Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa .....	088
<b>OSASUN ZENTRUAK</b>	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe .....	450300
Lesaka.....	637428 / 637336
Leitza .....	510248 / 510573
<b>KONTSULTAK</b>	
Arizkun .....	587039
Gartzain .....	580451
Oronotz-Mugaire .....	592024
Ituren .....	450183
Sunbilla .....	450283
Goizueta .....	514067
Igantzi .....	637755
Arantza .....	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
<b>ANBULATORIOAK</b>	
Irun .....	630264/621106
<b>OSPITALEAK</b>	
Irungo ospitalea .....	614444
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgenti zerbitzua .....	246750
Virgen del Camino erresidentzia .....	262700
Gurutze Gorria .....	226404
<b>ANBULANTZIAK</b>	
Oitz .....	450242/450342
<b>DYA</b>	
Lesaka (larrialdiak).....	(943)464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
<b>FUNERARIA</b>	
Lesaka.....	637404
<b>SUHILTZAILEAK</b>	
Oronotz-Mugaire .....	592044
<b>GARRAIOAK</b>	
Bidasotarra .....	630279
Baztanesa .....	580129
Leitzarar .....	515018
<b>HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:</b>	
Elizondo .....	580730
Lesaka .....	637154
Bera .....	630104
<b>ABERIAK:</b>	
Iberduero .....	450335/450336

**Deialdiak**

► **Igantzin**, apirilaren 2an, arratsaldeko 7etan Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

► **Lesakan**, apirilaren 5ean, Herriko Etxean, arratsaldeko 5etan Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **Beran**, apirilaren 9an, arratsaldeko 7etan, Berako Euskara Batzordearen bilera.

► **Arantzan**, apirilaren 11an, arratsaldeko 5etan Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

**Botikak**

► **Martxoaren 23-24ean**, Arantza, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Martxoaren 28an**, Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Martxoaren 29an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Martxoaren 30-31an**, Lesaka, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Apirilaren 6-7an**, Etxalar, eta F. Lezaun (Elizondo).

**Kantaldiak**


► **Saran**, martxoaren 23an, Omordia Salan 9etatik aintzina, Jojo Bordagari, Erramun Martikorena eta GUK taldearekin.

**Dantzaldiak**

► **Lesakan**, martxoaren 24ean, BASAKA-BI, 31an MINXORIAK eta apirilaren 7an ARKAITZ taldeekin.

**Errifak**

► **Bortziriak** Kirol Elkartearen bideoaren zenbakia: 4225.

**Bota bertsoa**

**Patxi Petrarena**

**Gaia:** Aste Santua

**Doinua:** Lagundurikan denoi

Eliz-ospakizunez ongi hornitua: heriotzaren samina, berpizte kantua. Nahiz sinesmen aitortza nahiz bertze hautua gizakion gogoan denez nahastua, gehienon burutan da oporren kontua.

Garai batean behar omen zen txartela, orain berriz hartzen da bideko "txartela". Haize-eroak harrotu bagintu bezela karreteran doake eundoko tropela; behintzat joandakoak itzul daitezela.

# AGENDA

## Kontzertuak

### ► Iruritan

ARTEA eta  
KULTURA 91

Alfonso Isasi, artxilaud eta Carmen Paris, sopranoak:

XVI. eta XVII. mendeko Aire eta Dantzak interpretatuko dituzte.

**Noiz:** Martxoaren 23an.

**Non:** Iruritan Elizan.

**Ordua:** arratsaldeko 8etan.

**Antolatzailea:** Baztango Kultur Zerbitzua.

## Gastronomia

### SAGAR PUDINA

#### Osagaiak

#### 4 lagunendako:

Erreinetar sagar kilo erdi bat, baso bat esnegain eta bortz arraultze.

Sagarrak xuritu eta pus-



Txaro Letamendik emana, HERRIKO OSTATUA - ITUREN.

katu, haziak eta bihotza kenduz.

Ontzi batean, azukrea ur pixka batekin sagarrak egosten jarri. Egosi direnean, hozten utzi eta gero, esnegaina eta bortz arraultzeak bota, guzia 'turmis'ean pasatuz.

Molde bat karameloztatu eta bertan, purea bota. Baño-marian jarri eta la-bean sartu 45 minutuz.

Serbitzerakoan, marrubi edo kiwi saltsarekin apaiundu.

## Kirolak

### ► Beran, Martxoaren

28an hasiko da eskubaloio monitoreen ikastaro intentsiboa. Ikastaroa zortzi egunez luzatuko da (Apirilak 6a arte) eta izen emateko epea Martxoaren 24ean bukatzen da.

Izen emateko Tfnoa: 637005(Mattari).

### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 6.600pzta. **Zerri gizena** (95-100): 157 pzta./kilo bizirik. **Urdamak:** 80 pzta./kilo bizirik.

### ► BEHIKIA

#### •Aretze gizenak:

**Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal  
Extra.....590  
1.koa.....550  
2.koa.....480

## Baserriko feria

**Urruxak:** Pzta/Kg. Kanal  
Extra.....610

1.koa.....570

2.koa.....500

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkatzen idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

**Baztango aretzea:** 650 pzta/kg. Kanal.

#### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 340-350 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri

ona: 420 Pzta /Kg. Kanal.

#### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak:** urruxak 17.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.

**Mestizoak:** urruxak 33.000 eta idixkoak 37.000 Pzta.

#### ► BILDOSKIA

• 12 kgkoak 390 - 395 pzta bizirik

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



**MALDAERREKA S.A.**  
**FUNERARIA ZERBITZUAK**

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA



**SANTAMARIA**  
**Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
**Eguneroko menua eta karta**  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**LEGARRA**

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

**GRUPO ZURICH**



**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

## Irratia

### Xorroxin Irratia

#### Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiraturaz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.



## Zinema

### ► Bailando con lobos

Kevin Costner  
USA 1990

"Bailando con lobos" izendatu zuten Siux indioek John Dunbar tenientea, otso batekin izan zuen erlazio bereziagatik.

Etsai amorratuak izan beharrean, elkarrekin ezagutzen, egoten, jaten, bizitzen eta errespetatzen ikasiko dute gizona eta otsoak. Ondoren, Siux indioak eta tenienteak prozesu berdi-



na segituko dute. Ipar Amerikako egiazko historiaren kapitulu berezi bat agertzen digu filma honek. Indioekin edo beraiei buruz

nahiko filma egin badira ere, ia beti itxura txarrekoak, basatiak, hiltzailak... bailiran azaldu dizkigute yanki zuriek. Hontan berriz, euren egoera, hizkuntza, jatzera eta ohiturak errespetatu ez ezik, jarri behar dituzten mailan jartzen dituzte indioak.

Kevin Costner-ek, zuzendari zein aktore printzipal bezala egin duen lana ezin hobea da.

## Bideoak



### ► Atame

Pedro Almodovar, Esp- 1990  
Almodovar-en garai hoberenak joanak ote direlakoan gaude, azken filma eta orain bideoan 'Atame'

ikusi ondoren. 'Que he hecho para merecer esto' filma egin zuen arte, arguementoak freskoak eta originalak ziren. Geroztik, lehendik erabilitako zenbait gai teknikoki hobeki landu baino ez du egin.

### ► Las montañas de la luna

Bob Rafelson, USA-1990

Richard Burton Nilo ibaia-  
ren sorlekuaren bila ibili  
zeneko istorioa. Abentu-



ran, lagunarekiko gorrotoa eta elkarrekin ibili beharra nahasten dira. Bideoan, Afrikako herri beltzen ohitura bereziak dira gauzarik ikusgarriena.



AFRO  
REGGAE  
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.  
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

## ETXEGARAI

### BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 - BERA

# Nerea

## Oinetakoak

San Miguel 2,  
DONEZTEBE



"Arkupeak" Elkarrekin Nafarroako erriberara eginen du bidaia. Bidai honetan parte hartzeko, izen emateko epea Martxoaren 28tik Apirilaren 2ra arte izanen da eta prezioa, berriz, 2.500 pezetatakoa.



Nafarroako Gobernuak gaur egungo Berako Lanbide Heziketa Institutuan, Batxilergo Tekniko Industrial eta Gizarte Zientzietako Batxilergoak ezartzea onetsi du, Bortzirietako eskualdean honen alde burutu den sinadura bilketaren ondoren.

## INSERSOK, urberoak hartzera joateko plazak atera ditu

Nortzuk joan daitezken eta bertzelako argibideak

Aurten ere INSERSOK "termalismo social" delakoan parte hartzeko plaza batzuk atera ditu. Balnearioetan dauden tratamenduak hauexek dira: *erreumatologikoa, arnasa egitekoa, digestiboa eta larruazalekoa.*

### Nortzuk joaten ahal dira?

Honako baldintzak betetzen dituztenak:

- Seguridad Sozialeko jubilazio edo ezintasun pentsioa izatea. Baita, alarguntasun edo berte pentsioren bat dutenak ere, 60 urte eginak izanez gero.
- Ezintasun larririk edo kutsakorra den gaixotasunik ez dutenak.
- Norbekabuz baliatzea beharrezkoa da.
- Aipatutako terma-tratamenduz behartuak.
- Baremoaren arabera, puntuazio nahikoa dutenak.

Baldintza hauek betetzen dituzten ezkontideak ere, bezeroak izan daitezke, 2., 3. eta 4. baldintzak betetzen baldin badituzte.

### Prezioak

Lekuaren arabera ezberdina. Halere, 19.600 eta 39.000 pza. bitarte daude guztiak. 15 eguneko txandak izaten dira. Bertan, *alojamendua, eguneko jana eta termal-tratamendua* sartua dago.

### Nola ordaindu?

Plaza ematen den momentuan, kostoaren %20a aintzindu egin behar da. Gai-nontzekoa, balnearioan sartzerakoan. Nahi duen guztiak, ekainaren 25a baino lehen eskaera bete behar du, Iraila-Abendu bitarteko txandetan joan ahal izateko. Informazio gehiago, goizeko 8etatik 9,30etara 635036ra deituz.

ITZIAR IRIARTE  
Bortzirietako Gizarte Langilea



## ATERPE jaitzea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak  
alokatzen ditugu  
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

## EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

## TXOKO ERRETEGIA

Bazkari, afari  
eta gosariak

ITUREN

Tfnoa.: 45 04 91

## IGANTZI, IGANTZI...

"...zera ikusgarriya" dio abestiak. Izan ere, herri hone-tan gertatzen diren gauzak benetan ikusgarriak bait dira. Euskararen arazoa etxean bertan ikusi dut txiki-txikitatik eta nere euskararen aldeko jarrera gura-soengandik datorrit. Hauek Igantziko eskolan euskarazko eredia egon zedin – eta euskarazkoa bakarrik – borrokatu zuten. Horretarako beren burua nahiko larri ikusi zuten, aurka zeuden gurasoak aunitz bait ziren.

Herriko arazoa zena, arazo pertsonala bilakatu zen eta zen-bait guraso zarata-tsuk hartu zuten jar-rerra nahiko lotsaga-rria izan zen. Giro hau 11-12 urte nitue-larik bizi izan nuen eta geroztik euska-raz arduratzen saiatu naiz, Igantzi beza-lako herri txiki ba-tean horrelako ara-zoa zegoela ikusirik, Euskal Herri mai-lako arazoak no-lakoak ote ziren pentsatuz. Azke-nean, euskarazko eredia lortu zen eta dirudiene denak gustora daude.

Baina gatozen odola irakin arazten didan horretara. Gu-raso zaratsu hauen

seme-alaba zaharre-nei, hau da, euskarazko ereduak harrapatu ez dien hauei eta beraz, er-daraz ikasi duten hauei, OHO akautu eta beren ikasketa aukeratzeko garaia ailegatu zaie eta... sorpresa!: Ia guztiek euskarazko eredia aukeratu dute! Honi deitzen diot nik "ideologi aldaketa". Dena den, euskaraz de P.M. solastea lor-tu dute; barkatu, igantziar hauek diotenez "hitzegitea": "bihar beste azter-keta daukat zeren eta irakaslea gai berriarekin hasi da..." Beraz, gure ohizko euskara nahiko baz-tertua gelditu

da: "bihar bertze esamiña dut, profesoria gai berriakin hasi delkoz..." Bada-kizue, beti ere euskara hori elegan-teagoa, finagoa gel-ditzen da "nota" ematerako orduan. Gazte hauek orain dela 6-7 urte gertatu-tako istiluak ikus zi-tzaten nahi nuke,

lotsa pasatzea zer den ikas dezaten. "...ez da bertze herri bat, zu bezin argiya".



Ioritz  
72.674.197

## Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



**S. Semper**

**Nekazal Tresneria**

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, Agerra Industrialdean



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26

LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



## SAROBÉ okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



## EUSKALDUNA JATETXEA


Tfnoa.: 63 03 92

BERA



## Aduana ixteko eskariaren alde agertu da Udalbatza

Ehun eta hirurogei beratarrek sinatutako eskariari erantzunez



Aduana herriburuan egoteak haserre ugari sortu ditu historikoki

ROMAN HARRIBILAGA

Osoko bilkura arruntean eta ahobatez Udalbatzak aldeko jarrera agertu dio 160 beratarrek sinatua Aduana ixteko aurkeztutako eskariari. Eraberean, Madrilgo Hazienda Ministeritzari, gobernuaren ordezkariari Nafarroan eta Iruñeko Gobernuako Lehendakariari akordioa ezaugarzteko erabakia hartu du, Aduana kentzeko gestioak lehenago ere egin izan dituela adieraziz.

Idazkian diotenez, haserreturik omen daude "inon ere egon beharko ez lukeen uestezko Aduana dela eta, herrigunean barrena libre ibiltzeko ezintasunagatik".

"Nazkaturik gaude Berako jende gaztea aunitzetan garaiz ez iristeagatik

*lantegira Ibarদিনera dibertitzera ezin igoz eta are okerrago etxera ezin joanez edozein tenoretan Aduanan edukia izateko beldurrik gabe". Azkenik "Lizunian kokaturik zegoen aduana itxia izan bada, zergatik ez daiteke itxi hau?", amaitzen dute galdetzen beratarrek.*

### Ospitalea zabaltzeko eskaria

Ospitalearen instalazioak zabaltzeko eskaria 1989ko uztailan hartutako erabakia berretsi egin du Udalbatzak. Horretarako eskariarekin batera orduan idatzitako aurregitasmoa ere bidali egin dio Iruñeko gobernuari Udalak.

Aurregitasmo horren arabera, oraingo Ospitaleak bere hegoaldean eraikiko lirateken bi solairutan 24



Joselu Etxeberria

logela gehiago izanen litzuke, 50 milioiko aurrekontuarekin. Ospitaleak 3. adineko ezinduak eta ezinduak ez diren pertsonak hartuko litzuke, nahiz eta Iruñeko Gobernuak Nafarroak dituen beharrak aztertu eta gero, eraikuntza berriak ezinduentzat bakarrik egiteko asmoa izan, berez baliatzen direnak berriz etxebizitzetan jartzeko.

### Joselu epaitua

Hamalau urteko garze la zigorra eman dio epaileak Jose Luis Etxeberria Lekuona preso politikoa beratarriari, Otsailaren 18an Madrilgo Entzutegiko 4. sailean epaitua izan ondoren. Hala ere, epaitzari errekurtsioa eginen omen zaio Joseluren abokatuak dioenez. Oroiterazi, ber-



Olga Olveira

tzalde, epaiketa egunerako autobus bat joan zela Madrila Bortzirietatik eskualdeko abertzaleen elkartasuna eta laguntza Joseluri eman asmoz.

### Olga Olveirak eta Jose Mari Irazokik emaitza bikainak

Euskalerriko txapelaldun gertatu zen Olga Olveira Ustaritz Berako atleta otsailaren 17an emakumezko haur mailan Ordizian garatutako 1.800 mko. kross lasterketan. 200 baino lasterkari gehiagok parte hartu zuten, Olveirak Irungo Txingudi ikastolarekin egin zuelarik laister.

Jose Mari Irazokik ere Nafarroako marka hobetu zuen 60mtan, junior mailan, 7.08 denbora eginez Anoetan burututako Euskalerriko txapelketan.

LESAKA

## Asiloarentzat zuzendaria eta langileak kontratatuko ditu Udalak

AITOR AROZENA

Udalbatzan bildutako zinegotziek ahobatez onartu zuten zuzendari bat, 3 turnoetan lan eginen luketen bortz pertsona, sukaldari bat eta garbiketari bat kontratatzea "Residencia de la Inmaculada" Lesakako asiloan lan egiteko.

Gaur egun, asiloaren gestioa, borondatez ari den pertsona batek darama, bertako lanak egiten dituzten zenbait pertsona kontratatuak daudelarik, 4 gaixoak zaintzen, 1 garbiketari eta bertzea sukaldari.

Langile nahiko ez daudela eta, alkateak garbiketari arduratzen den pertsona, bertzeen betebeharrak berkin hiru turnotako sistemara gehitzea proposatu zuen. Horrela, turno sistema bortz pertsonaz osatua egonen litzateke, garbiketari zerbitzurako deialdia zabalduz eta zuzendaria kontratatuz.

### Paleta txapelketak

Arkupe Pilotazale elkarteak, gomazko pilo-



tarekin jokatu den lehen paleta txapelketa antolatu du. Txapelketa hau, parte hartu nahi duten bikote guztientzat zabalik dago eta izen emateko epea, hilaren 24ean bukatuko da.

Baita ere, modalitate berdinean, emakumeentzako bostgarren txapelketa antolatzen du, hemen izen emateko epea Martxoaren 31ean bukatuko delarik.

Bi kasuetan, izen emateak honako telefono huetan egin beharko dira: 627518, arratsaldeko 6etatik gaueko 10etara (Begoña), 637241 (Juanito) eta

637827 (Ramon).

Bi txapelketetako kalendarioak eta bertze xehe-tasunak, izen emateak bukatzean emanen dira.

### Besta programaren azal lehiaketa

Aurtengo Sanferminetako egitarauaren azaletako lehiaketarako deia egin du Udalak. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkez ditzake apirilaren 30a baino lehenago Udaltxeko bulegoetan.

Lehen saria, 30.000 pezetakoa izanen da eta bigarrena, berriz, 20.000 pezetakoa. Lehen saria

aintzineko azalean joanen da eta bigarrena gibelegoan.

Lanak, kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz eta neurriei dagokionez, iazko egitarauaren antzera, 25x20 cm. izanen da osotara, 2,5 zmtako, ertza margotuz inguruan eta irudia barnean kokatuz.

### W ttipi-flash

**Hainbat** musika lan berreskuratuko ditu Udal artxiboak, musika bandaren idatzi bati erantzunez. Hauen artean, "Beti Gazteren himnoa" eta "Lesakako kantak" bilduma egonen lirateke.

**Bideak** eta karririk moldatzeko eta bertze lanak egiteko, langabezia dauden 3 pertsona kontratatuko ditu Udalak.

**San Fermin** Jubilatutako Elkarteak 35.460 pezetakoko superabitarekin bukatu zuen 1990. urteari zegokion iharduna. Asanblada Orokorrean jakitera eman zuenez.

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27  
LESAKA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 63 75 42  
LESAKA

**IRUBIDE**  
**OSTATUA**  
**ERRETEGIA**  
Tfnoa: 637127 LESAKA

## “Papelerak” Etxalarko zentralak saldu egin ditu

Langileek ez dute, momentuz, lanpostuak galduko

PELLO APEZETXEA

“Saltos del Bidasoa” izeneko Etxalarren kokatuta dauden bi zentralak, orain arte “Papelera Española”renak zirenak, “Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A.”k erosi ditu. Enpresa honen % 37a Nafarroako Gobernuarena da, Iberduerorena bertze hainbertze, gainerakoa partikular batzuren dela. Iruñea-Irun bidegurutze ondoko zentrala bezala, goikoa ere automatizatzea pentsatzen omen dute lehenbaitlehen, Nabasturengoarekin batera. Dena den, langileek, momentuz behinipehin, lana seguroa daukatela dirudi.

### Elkarte berria

Ikastola inguruan arituen Batzordeak sortuta, Altxata elkarteajaioda, eta kultur ekintzak bultzatzea eta antolatzea izanen du



bere eginkizun nagusia. Kideak Ikastolako guziak izanen dira, ezezkorik ematen ez badute, nahi duen guztiarentzat atek zabalik badaude ere, kuota ttikiren bat ordainduz. Juntakoak honako hauek ditugu: Fermin Iparragirre, Joxe Mari Arburua, Mari Kruz Andueza, Axun Ula-zia, Karmele Indaburu, Emma Sanzberro, Junkal Alzuguren eta Jose Manuel Irigoien, azken hau

presidentea. Dagoeneko urteko Kultur Egunak-en egitarau edo programa prestatzen ari dira.

### Elizako obra

1985ean hasita 1990ean bukatu dira, elizari berriztapen aski nabaria eman dioten lanak. Teilatu konponketa, zola azpia saneatu eta solairu berria eman, paretak pintaketa, erretabloak garbitu eta moldatzea gehi argi insta-

lakuntza osoa berritzea, izan dira lan nagusiak. Gastua, 9.729.039 pezeta-takoa, kitatua dago, herrian bildu diren ia zortzi milioi t'erdiri esker, Nafarroako Gobernuak ere 1.376.000 luzatu dituela. Soldata gabeban lanean aritu direnak ere badira, batzuk ordu aunitz horrela sartu dituztelarik. Bertze aldetik, konponketa guzien arteko ezuste-koetan, erretabloena izan da bat: aurpegi ilunak zirenak, kolore bizikoak agertu baitzaizkigu, duela 200 urte emandako pintura bera, hain zuzen, Neoklasiko estiloan maila oneko pintaketa, berriztatzaileak dioenez. Bertze ustegabe-koa, hilarriena izan dugu. Biltegiko zolaren moldatze lanetan 72 antzinako hilarri aurkitzea, paretaren oinarritako sartuta zeudenak eta orain eliz aintzinean ikus daitezkeenak.

IGANTZI

## Udalaren 1990eko kontuak

OSKAR TXOPERENA

Aintzineko alean kontutako sarrerak aipatzen bagenituen, oraingo honetan 90ean dirua zertan gastatu zen aipatuko dugu, irteerarik haundienak, behintzat:

Eskolako atariko mol-daketak, 6.521.731 pzt. (4.417.500 laguntza), argiak berritzea 18.101.979 pzt. (12.693.280 laguntza), bideak moldatzeko 15.485.422 (10.573.574 laguntza), Bentako uren

depositoa, 628.971, Udaleko ordenadorea, inpresora eta fax-a 1.440.524, Zabor Mankomunitateari, 1.884.920, udaleko jende-ari ordaindua 8.214.652, garbiketak, 480.000, basurak biltzeko 564.704, kul-

tur gastuak, 1.952.155, Euskara Mankomunitateari 607.495, kultur subentzioak 401.921, mendiak landatzeko 2.238.523 eta



(bertze aldean segitzen du)

uraren banaketa 698.730 pezeta.

## Biltokiko finalak

Aurten ere jokatu eta bukatu egin dira Biltokiko mus eta partxis txapelketak, Martxoaren 9an izan baitziren finalak. Parte hartu duten bikoteak 22 izan dira musean eta 16 partxisean. Partxisean Ramontxo Alzuri eta Iñaki Etxeberriak irabazi zuten finalean Joxepa Etxeberria eta Felix Goikoetxearen aurka eta musean, berriz, Anixeto Etxeberria eta

Emilio Mendigutxiak Iñaki Hita eta Mikel Retegiri irabazi zieten. Ondoren, afarian, sari banaketa eta ohi den bezala, Gregorio Mitxelenaren musikarekin bukatu zen besta.

## Zaborontziak hankak gora

Azken bolada honetan maiz ikusten ari gara zaborontziak bazter guztietan bere lekutik mugituak daudela eta zenbaitzutan errekatara botatuak ere. Gehienak inongo loturarik gabe daudenez, haizegoak



mugitzen ditu baina bertze aunitz ere haizegoak jotako zenbaitzuk botatzen dituzte errekarara. Mankomunita-

tearen lana da ontziak lotzea baina inongo trabarik egiten ez dutenez, utz ditzagun bere hortan.

## ARANTZA

### Patxi Idirte arin, Tomas arinago

7,57 minutoetan jeitsi zuen honek Mendaurrera jarritako marka

JON LARRETXEKA

Joan den larunbatean, martxoak 9, egin zuen Mendaurrerako saioa Tomasek, Patxi jarria zuen marka hausteko helburuarekin eta erran beharra dago ederki aski lortu zuela. 6 minututan jeitsi bait zuenigoeran eta 1,57 minutuetan jeitsieran.

Hona bi korrikalariak egin izan duten denboren taula:



rionak eman beharrean gaude Tomaseri, zorionak bi aldiz gainera, datorren larunbatean ezkontzen bait da gainera Tomas. Zorionak eta urte aunitz iraun diezazula sasoi eder horrek. Ia nor den hurrengo!

## Euskal Haur Kantu Lehiaketa

Emitza ederra lortu zuten, lehengo igandean. Otsailak 10, aranaztarrak Donezteben ospatutako Euskal Haur Kantu lehiaketaren azken kanporaketan, aurkeztutako hiru taldetik bik, Iruñean hilaren 24ean egingo den finalerako sailkatzea lortu bait zuten.

Beraz, hemendik, animo eta ia txapela eskuratzten duzuen.

Oraingoan Raimundo eta Florentino irteeran eta Beñardo eta Oscar ermitan izan ziren testigo edo lekuko lanetan aritu zirenak.

Lehengoa marka haundi bezala azaldu bagenuen, oraingoan hobeagoa alajainkoa! Beraz, zo-

	GAINSENBERREKO - BORDA		MENDAUR
	Igoera	Jeitsiera	Guztira
Patxi	49,05	23,52	1h. 12' 57"
Tomas	43,05	21,55	1h. 5'

## Malerrekako Osasun arloaren gorabeherak

TXEMA ALDABE

### Oraingoz ez da haundituko Osasun Zentroa

Pasa den negurako Osasun Etxeko haunditze lanak eginak egon behar bazuten ere, dirudienez denbora gehiago egon beharko du dagoen bezala. Nafarroan birmoldaketarako diru urri dagoelako eta ia ezinezkoa litzatekeelako presupuesto hori agortuko lukeen proiektuari lehentasuna ematea. Dena den, eginahalak eginen dire eta horretarako Malerrekako Udalen 4 ordezkari Juan Cabasesekin elkarrizketatzea eskatuko dute, aurrekontuak gehitzea eskatzeko.

Erran behar da Doneztebeke Udal-arkitektoak jadanik haunditzeko proiektua burutu duela. Osasun zentroak, 550 m<sup>2</sup> azalera izanen lituzke eta kostoa 38-40 bat milioi.



### Ur gehienak ez dira edangarriak

Malerrekako herri gehienetan edaten den ura ez da edangarria. Horixe dio EAPk (Equipo de Atención Primaria) egindako txostenak kloratzaileak dauden uren azterketa egin ondoren. Doneztebe, Oieregi eta Sunbillan edangarriak dire, Narbarte eta Ezkurran, berriz, sanitate aldetik onargarriak baina Ituren, Zubietan eta Elgorriagan ez dira edangarriak. Gainontzerako herrietan ez dago

kloratzailerik, horrek duen arriskuarekin.

### Eratsun eta Ezkurran kontsulta kaxkarrak

Zalantzan paratzen da bi herri hauetan kontsulta pasatzen segitzea dauden egoeratik. Berritze proiektuak eginak eta onetsiak daude eta Udal hauen eginkizuna da hori aintzineratzea.


•302 osasun-ikustaldi egin dire eskualde honetako establezimendutan, hauen egoera azaltzen du-

ten 32 akta egin direlarik.

### Iazko memoria eta 1991ko helburuak

Iaz egindako programaren barruan aipagarriena tentsioa neurtzearena da. %90 neurtzea espero baldin bazen ere, lehenbiziko fasean %54 bete zen. Aipatzekoa, mediku batek lan gutti egin zuela arlo honetan. Bigarren fasean, berriz, erizain batzuk lana aintzindua badute ere, bertze batzuk hasi berriak dire.

Emakumeak erditzeko prestakuntza eta gai ez direnendako etxeko laguntza hala nola sexu heziketa eta familia plangintzan ez zen gauza haundirik egin. Berandu xamar egin bada ere, EAPko eta eskolan dauden ikasleen gurasoekin bilerak egin dire elikadura programari ekiteko. Oinarritzko Giza Zerbitzuetako dirulaguntzak lortzeko aukeraz solastu ziren ere azkeneko Osasun Kontseiluan.

*zintatzen*  
  
**Udaberriko moda... hementxe dugu!!**  
**San Migel auzoa 27, 45 08 83 - DONEZTEBE**  
**ARROPA**

  
**ARROPA ETA OPARI DENDA**  
**EXIMELETA**  
 Mercaderes 9  
 DONEZTEBE

  
**LAIA**  
 MUSIKA DENDA  
 BERA 631054  
**Diskoak, Metodoak, Musika-Tresnak, HI-FI soinuak, Soinu-Profesionala, Ekipoen Alokairua...**

ITUREN

## Jende ugari Korrikaren afarian

IBAN ISASI

Aurretik iragarri genuen bezala, Korrika taldeak eratu ziren otsailean eginiko bileran (publizitate, korrika-lagun, kilometro-saltze eta ekintza taldea). Azkeneko honek antolatu zuen afaria Udaltxeko ganbaran, guzira 65 euskaltzale elkartuz. Afalondoa alaitzeko, Kristian Laborda eta Jon Mikel eta Arantxi txikitilari-panderojolea aritu ziren. Antolatuzaileek ziotenez, arrakastatsua izan zen.

### Udalak INEMi, 3 langileren eskaera

Hainbat lan burutzeko,

3 langileren eskaera egin dio Udalak. INEMek hemendik hilabete batetara emanen du baietza edo ezetza.

### Juani Etxepeteleku, Udal-lokalen garbitzailea

Orain dela hilabete bat edo egin zen subasta. Udalak proposaturiko soldata 20.000 pztatakoa zen eta garbitu beharreko tokiak hurrengoak: eskola eta gainerakoak asteazken eta ortziraletan; idazkaritza edo sekretaria astean bi aldiz; mediku-kontzulta ere bi aldiz; Laubide-lokala edo mutikoen eskola, astean behin. Hiru izan ziren



Vianako Pintzea Erakundeak, Jauregia etxea, "monumento historiko-artistiko" deklaratu berri du.

aurkeztutakoak eta Juaniri tokatu zitzaion. Hau, sei hilabetetarako hartua izan da eta bertze sei hilabetez kondizioak betetzen badiira. Aipatu azkenik, lehen ere bera zela garbitzailea.

### Ameziako argiteria

"Amaia Electra" enpresari eman zaio lan hau. Ondorioz, goian tentsio-

haundiko transformadorea eta 12 baserritarako tentsio-txikiko tomak egingen dira. Aurrerantzean, argisare hau Iberduerok administratuko du. Intalaziorako laguntzaren %50a N.G.ak emanen du; %25a, Iberduerok; eta gainerakoa bertako auzotarrek ordainduko dute beren lanarekin.

ZUBIETA

JUAINAS

Azkeneko Udal bileran punto garrantzitsu pare bat tratatu zirela eta hoietaz solastuko dugu gaur, serio-tasun beharra bagenuen antzera...

Iberduerokoekin kontratua sinatuko da, laister, onartu bait zen. Ezaguna duzue zein kondizioetan, hortaz, jakiteko duzue hasieratik euren eskuetan gelditzen dela linearen esplotazioa.

Arau subsidiarioak, berriz, Udalaren aurreo-

narpena izan zuten. Boletinan argitaratu ondoren publikoki erakutsiko dira eta, 15 egun bat pasaturik, gutxi gora behera, arkitektuak horrela proposatu zuelako, batzarre bileraedo antzeko zerbait egingen da, agertuko diren zalantzak argitzeko. Arauak, zonalde "urbanoa" definitzen badute ere, ez dute betiko mugatzen, hau da, nahiz eremu bat kanpo gelditu, geroago eraiki asmo balezgo, posible izanen da, lauzpabost hilabete pasa ondoren, arauak aldatzeko



beharko direnak, alegia. Bitartean, eta eraiki asmo konkreturik izan gabe kontribuzio urbana ordaintzea, beste baino

garestiagoa, hain zuzen ere, logikoa ez dirudi.



(bertze aldean segitzen du)

## Despedida!!!

Gezurra badirudi ere nitaz libratzen zarete. "Dendaingo" Ion eta "Ru-

finaren" Jaionek testigoa hartzeko prest bait daude. Euren eskuetan gelditzen da, zuen laguntza, boron-

date ona, kritika konstruktiboak eta abarrekoak emandakotzat emanik. Aditzen duzue Jon Mikelek

Xorroxin irratitik esaten duena? Belaunaldi hauek zibilizatuko gaituzte! Ongi izan!

## URROTZ

JOXEMARI URROTZ

### Bide moldaketak auzolanean egin

Egun hauetan herriko jendeak auzolanean egin du bide puska baten moldaketa. Pareta zaharra bota eta berria egin da, bidea zabalduz, lehenago nahiko estua bait zen gaurko tresnendako, jakina.

Auzolana egin zen ere kontsulta berriaren inguruan pareta egiteko.

### Frontoiaren obrak

Frontoiaren eraikuntzak ere itxura hartzen ari du, bi paretak zutik bait daude baina oraindik ez dago Urrotzko pilotazalenzat prest, horregatik, esperatu egin beharko dute beharbada gero futboleko paretan kontra aritzeko.

### Gazteen afaria

Guziak ez egonarren, gazte mordo bat bildu ginen eta elkarrekin afaldu genuen, Donostiako Egia



auzoko lagun jator batzuk, euren trikitixarekin giro ederra jarri zutelarik. Hala

ere, Doneztebeko Bordatxon bukatu genuen.

## SUNBILLA

## Errola edo padroia berritzen ari

Zuzen egiteak badu garrantzia

PATXI PETRIRENA

Orain ari da herriz herri, eta Sunbillan ere bai, udal-errola edo herrian bizi direnen zerrendatzea. Hau bortz urtetik behin egiten da, eta gauza garrantzitsua da, gero laguntzak, subentzioak, pentsioak, erresidentzi-agiriak eta abar eskatzeko beharrezkoa baita.

Padroia egiteko inpresorik batzuk bete behar dira, eta hau norberak egin dezake edo behar izanez gero horretarako dagoen pertsona baten laguntzarekin. Hori dela eta, herritar bat

dabil lan hori egiten etxeko etxe. Beraz, zalantzak izanez gero lasai egon, laguntza badago eta.

### Abarteen subasta

Herriko Etxeko abartean kotxeak uzteko eskaera dela eta, Herriko Etxeko subasta edo enkantea egitea erabaki du, eta Martxoaren 22ko eguerdiko 12ak arte aurkezten ahal dira eskaera-orriak, sobre itxian Herriko Etxean bertan.

Hasierako edo guttienerako prezioa 12.000 pzt. abarteko eta urteko izanen da.



Herriko Etxeko abartean

### Meakan lanak hasiak

Dagoeneko hasiak dira Meakatik herrira ura ekar-

tzeko lanak, Sunbillako "Idoia Exkabazioak" enpresa ari delarik obra hori burutzen. Sei hilabeteko epea dago akitzeko.

**BAZTAN**

**“Iturri Ederra” Ur Elkargoak batzarra ospatu zuen**

Ura, metro kubikoko bi pezeta garestitzea erabaki zen

MAÑONE eta JOSEBA I.

Martxoaren 9an, Erla-tegi zineman, Elizondoko Iturri Ederra ur elkargoak batzarra egin zuen. Bertan onartu zen Iturri Ederrak kobratzea NILSAk (Nafarroako enpresa batek), ur zikinengatik ezarri duen zerga. Enpresa honek, Udalak saneamenduko obrak egin ondoren, konduktoreak eta depuradora bat jarriko du.

Juntak, 1990. urteko kontuak azaldu zituen. **Gastuak** 5.805.013 pzta-takoak izan ziren, diru **sarrerak** berriz, 5.521.827 pezetatakoak. Beraz, 1990ean 283.186 pezeta galdu dira. Azaldu zen ere, Baztango Udalak duen 3.182.397 pezetatako zorra kobratzeko egin diren gestioak. Elizondoko herriak ere 800.000 pezeta zor dizkio Elkargoari. Urak bi pezeta goratzea onartu zen, metro kubikoko 14 pezetatik 16ra, hain zuzen.

Junta erdia ere berritu egin zen. Remigio Lizasoain lehendakariordea (lehen ere postu hau betet-



zen zuen), Jesus Mari Karririkiri, Ramon Sobrino eta Bixente Ballarena, Fermin Larralde lehendakariak hautatutako bokaliak eta bokal bezala, batzarreak Alfredo Astiz aukeratu zuen. Zuzen Karraskedo eta Ramon Lizasoain kontu zentsuratzaile bezala aukeratuak izan ziren.

**Batzarrea Aldudeko errepidearen alde**

Martxoaren 10ean, Elizondoko Herriko Etxean batzarra ospatu zen, bertan, Aldudeko errepidearen aldeko erabakia eta komisio bat osatzea onartu zirelarik. Honen partai-

deak, Pello Setuain, Aldudeko alkatea, Pedro M<sup>a</sup> Esarte, Elizondoko juradua, Remigio Lizasoain, Baztango Udalaren zinegotzia eta Fernando Ballarena, Elizondoko kargoduna dira.

Onartu egin zen ere datorren Junta Orokorrean, bailararen ordenantzetan dauden hauteskunde artikulua aldatzea.

Batzarrearen bertze gaiak, El Pilarreko igerileku estalia, kanposantuaren haunditzea, herriko bestak eta Iturri Ederrarekin dagoen zorra izan ziren bertzeak bertze.

**Udalak turismoa indartu nahi**

Baztango Udalak Inigo Doria Bajo jaunari turismoa indartzeko estudio bat eskatu dio. Bertan, zenbait Natur eta kultur ibilbide seinalatuko dira, gida bat ere argitaratuko delarik. Horretarako, azken Udala Batzarrean 6.124.642 pezetatako aurrekontua onartu egin zen.

Azken aldiotan, zenbait baserri egokitu dira turistak hartzeko. Baserri hauek zein diren eta non kokatzen diren jakiteko gida bat argitaratu da, baserrien argazki eta guzti.

**Batzarrearen erabakiak**

Elizondoko juradua, Baztango hamabortz herrietako juradoen hauteskundeetan Nafarroako Gobernuak onartua duen Hauteskunde Legea aplikatzea eskatuko dio Baztango Junta Orokorriari. Horretarako, balleko ordenantzak aldatzea eskatu zuen batzarreak ahobatez hartutako erabakian.

**ARROPA INDIAN ESKEINTZA ZABALA  
GALTZAK, ATORRAK, KONJUNTOAK,  
GONAK, PAÑUELOAK...**

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**MENDIALDE Jatetxea**



Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00



## Martxoaren 9an bukatu zen mus txapelketa

ALIZIA OLAIZOLA

Urdazubiko mus txapelkunak, Patxi Sansiñena eta Jaime Sagastibeltza izan ziren eta bigarren postuan, Tomas eta Joxe Mari Ariztia geratu ziren, bi bikoteek beren kopak errezibituz. Ondoren, Indiano Baitako afarira, herriko gazte guztiak eta ezkondu batzuk, denetara 75 bat lagun bildu ziren. Animazio haundia izan zen, afaldu genuen Martin "Barrantxe"-ren bertsoak entzunez eta horren ondoren dantzaldia Modestore-



Herriko gazteak alaltzen

kin goizeko 6ak arte. Doi doia ailegatu ziren besta hontat hemengo bi gazte, egun batzuk Paris bisitatzeko pasatu bait dituzte.

### Kinto besta

Joan den Otsailaren 23an ospatu zuten 1959 eta 1960an jaiotako Urdazubitarrek eta Zugarramurdi-

tarrak beren kinto - besta, Beotxea jatetxean.

Hogeitamar eta hogeitamaika urte dituzten hamabost bat lagun bildu ziren, gehienak urdazubitarrek, eta afaldu ondoren "pixtu-pixtuak" zirenean Juan "Amus" eta bere lagunak Bordatxorat joan ziren eta bertzeak Lapitxurirat.

Biharamunean, igandean ospatu zen Julen Ariztiaren bataioa, Don Justino jaunak meza nagusia hamaiketan eman zuen San Salvadore elizan.

**ERRATZU  
OKINDEGIA**

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU



**deceuninck**

Behar duzuna, PVCn

Nafarrorako egile ofiziala:

**ONENA Tailerrak**

Zaldubia Poligonoa, **IRURITA (BAZTAN)**

Etiket mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu


- Botilatu eta botilatu gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 Tfnoa.

**AZPILKUETA**

**OSKORRI  
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRE



«**ZALDUBI**»

**SUKALDE  
MOBLEAK**

Altzari fabrikazioa eta  
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77  
**IRURITA - BAZTAN**

**Eskeinaroi  
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013  
**ELIZONDO**



Ezkontzetako erreportaiak  
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55  
Santiago 40  
**ELIZONDO**



Argazkiak, Bideoa, Markoak  
ELIZONDO TF: 58 04 91  
DONEZTEBE TF: 45 03 64

SARA

## Ospitale ohiaren antolaketak

OLHAIN ELKARTEA

Herriko Etxeak joanden urtean aurkeztutako proiektuen artean zegoen Ospitale ohiaren antolaketza, elkartei zabalduko etxe bat egiteko gisan.

Ditugun xehetasunen arabera, hau "Denen Etxea" izanen da. Bertan jarria da Sarako Gaztetxea. Beherean, Gaztetearen ondoan behar lukete erakusketentzat erabili litaien sala haundi bat eraiki. Lehen estaian elkarte ezberdinek bilkuren egiteko erabiltzen ahalko diren gela bat eta Beti Gazte, adinekoen elkartearen sala. Bigarren estaian, Zazpiak

Bat dantza taldearen lekua. Obrak martxoan hasi dire eta behar lukete heldu den irailkotz bukatuak izan.

Diru aldetik, etxe huren berritzeak 1.750.000 libera gosta behar luke, Departamentuko Kontseilu Orokorrak 250.000 liberako dirulaguntza eskeintzen duelarik. Gaineratikoa Herriko Etxearen gain gelditzen da.

### Beti Gazte bilkuran

Beti Gazte, adinekoen elkarteak urteko bilkura nagusia zuen Martxoaren 6an Baratxartean. Manex Bergarak zionez, "124 lagun elgarretaratu gare eta taldearen barneko goiti



behitiez mintzatu ondoan bazkari ederraz gozatu. Koxe Larzabal akordeonistak airostasun gaitza eman zion bilkurari. Zinez ezagun zen Saran ginela, zeren gure arteko solasetan, nola kantuetan,

gure mintzaira lehena, euskara, zabilkan erotik jendeak. Biba zaharrak, atxik oino ere. Gure ondolik heldu diren gazteek, zuen exenplu ederra segi dezaten, beren etorkizuna ukatu gabe. Milesker."

ZUGARRAMURDI

## Fernando Arburuari omenaldia egin zitzaion Altzan

KORO ETA MARGARI

Otsailaren 24ean Donostiako Altza auzoan ospatu zen Fernando Tito eta Koldoren omenaldia, gartzelan eramaki dituzten 10 urterengatik. Fernando Arburua herri hontako semea da, eta hortaz, Altzan ez ziren faltatu Zugarramurditik joandako familia eta lagunak. Eguna, mutil hauen 10 urteak zer izan diren jakinerazteko mintzaldi batekin hasi zen, gero erakusketa bat, berek gartzelan egindako lanekin eta ondoren bazkaria: txistu-

lariak eta txalapartariak izan ziren animatzaile.

### Sorginkeriak?


Azken egunetan lezean izan ditugu bitxikeriak: bat desagertu dela, zakur batek haur bati atsiki egin ziola eta azkenekoa emakume bat erori zela lezeko errekarat. Azkenean dena antolatu zen: Desagertua aurkitu ginuen, zakurraren atsikia sendatu eta emakumea busti-bustia gan zen etxerat. Jendeak sorginkeriak zirela erraten zuen: desagertuak zilo batean sartu eta ez zela konturatu hainbertze denbora pasa-



tua zela; zakurraren nagusiak erran zuen zakurra lasai zegoela eta lezean sartu bezain laister, erotu omen zen, eta emakumeak uste zuen norbaitek bultzatu

ziola. Ez dakigu gauza guzti hauek kasualitateak diren, jende hauen irudimena edo sorginak hasi ote diren beren trastekeriak egiten.

## Igande honetan jokatzekoak dira Pilota finalak



Denak ezin sartu... finaletan ere

Igande honetan, martxoak 24 jokatuko dira herriko pilota txapelketaren aurtengo finalak. Lehengo urtetan inñauteri igandean jokatzekoak dira, aurtengo atzerago etorri dira. Joan diren bi igandetan burutu ziren kanporaketak, eta hortatik garaile atera ziren bikoteak, beraz finalean ariko direnak, honako hauek izan dira: J. Mariñelarena eta Bildarraz, J. Iparragirre eta Gartzia. Barriola eta I. Iparragirre, Alduntzin eta Buldain. Eta Mariezkurrena eta A. Mariñelarena, Zabaleta eta

Gartziarena.

• **Bengoetxea IV**, Juan Mariri, apirilaren 7an egin nahi zaio herri omenaldia, pilota uzten duelata. Egundian hortan: dantzariak, pilota, bertsolariak... izanen ditugu Leitza.

• **Ostirala** honetan Korrika 7 pasako da. Aurtengo Gipuzkoa aldetik dator eta goizeko ordubatak aldera pasako da herritik, ostirala-larunbata tarteko gaurdian. Bezperan Korrika Txiki bat ere antolatuko da.

• **Herri Krossa**, datorren apirilaren 14erako dago iragarria.

## ARESO

## Eskolak berretzeko asmoak

Eskolak barrutik bota eta egiteko asmoak gauzatu dira denbora luzez saiatu ondoren. Zolari pixko bat kenduz entreplanta irabaziko zaio. Behean, psikomotrizitate gela, tutoriak eta komunak. Ikasgelak goian. Felones bera ere izanen dugu Areson.

• **Sarriopapeleko** langile talde batek kirol ikuskizun ederra eskeini zuen herriko plazan, duela aste pare bat. Eta jende talde polita bilduarazi ere. 10 kirolari beteranok zuten desafioa, 5 proba bi bueltan burutuz: laisterka, egurra zutik ebakitzen, txingak, 50

kiloko zakua bizkarrean eta aizkoran egurra etzanda. Benetan, bizi bizia izan zen

saioa. Eta lagun artean hasitakoa, lagun artean bukatu zuten, Pake-tokian.



Ikusgarria izan zen kirol saioa

### INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.  
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

**HERRIKO  
ETXEKO  
EDANTEGIA**

*Michel  
Guereñdiain*

**SARA - LAPURDI**

GOIZUETA

Pinadien egoera larria da prozesionariaren ondorioz

ESTEBAN AROZENA


Azken denboraldi honetan Goizuetar askoren artean kezkarik gehiena sortzen duen arazoa prozesionaria izenarekin ezagutzen den intsektu plaga nazkagarri hau da, kontutan hartuz gure mendietan ia 3.000 hektarea pinuz landatuak daudela, gehienak gaitz honek joak daudelarik.

Herriko "monteroak" esan zigunez, Diputazioari iaz eskatu zitzaion hegazkinez baliatuz pinadiak fumigatzea, baina inork ere garbi ez dakizkien motiboengandik oraindik ez da gure mendietara holakorik ailegatu. Hala ere, esan beharra dago, alkateak azken plenoan aurreratu

zuenetz aurtengo udaran burutuko dela fumigazio hau.

Arazo honi beste bat ere gehitu behar zaio: urte batzutan suhiltzaile talde bat osatu izan ohi du diputazioak, gutxienez sute arrisku haundiena izaten zen hilabeteetan. Baina azken urte hauetan holako zerbitzurik ere martxan jarri ez denez, goizuetar asko oso haserre mintzatzen dira Nafarroako Gobernuaren jarrerarekin.

Esan beharra dago, ar hauek direla medio herri-tar asko medikuaren kontsultara joan beharrean gertatu direla, batez ere larruan sortzen diren azkure eta infekzioengandik.



Udala eta Umore Ona Korrikan

Euskalerrria zeharkatzen ari den Korrikak Udalaren eta Umore Ona elkartearen apoio osoa jaso du eta Leitza inguruan korrituko dituzte erositako kilometroak.

•Aldizkari honen

azken alean Lujanbiori eskeiniko zitzaion omenaldiaren berri ematen genuen, Martxoaren 18an burutuko zela esanez. Pilotariak kontratatzerakoan sortutako arazoak medio ekintza hau aurreratu zen. Beraz, ez da TTIPI-TTAPAREN okerra izan, antolatzaileen gorabeherak baizik.

Ansonea  
Jatetxea

SUKALDARITZA IKASTAROA

NOIZ: Apirilaren 8tik 12ra.

ORDUA: Arratsaldeko 5etatik 7etara.

IKASTARO PRAKTIKOA IZANEN DA

MATRIKULA: 10.000 pzta.

PREZIO HONETAN, 2 LAGUNENDAKO  
AFARIA ERE SARTZEN DA

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 - BERA.

MANOLO  
TABERNA

Edari Banatzailea:

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

**EZKONTZAK**

Jose Luis Astibia Apezetxea eta M<sup>a</sup> Martina Garmendia Chacon, Leitzako eta Ibarakoa, Martxoaren 18an.

Alberto Carlos Jimenez Erviti, eta Milagros Juanena Juanena, Iruñekoa eta Doneztebekoa, Martxoaren 2an.

**JAIOTZAK**

Xabier eta Alazne Altzu Arozena, Iturenen, Otsailaren 12an.

Jaione Larrea Elizalde, Leitzan, 1990ko Abenduaren 19an.

Amaia Bengoetxea Aldasoro, Leitzan, 1990ko Abenduaren 24ean.

Jon Goikoetxea Billabona, Leitzan, Urtarrilaren 12an.

Josu Sestorain Saralegi, Leitzan Otsailaren 7an.

Unai Elizagoien Larralde, Beran, Otsailaren 18an.

Juan Jose Agerrebere Arraztoa, Iruritan, Martxoaren 7an.

Oihane Juanena Iriarte, NARBARTEN, Otsailaren 25ean.

Ainhoa Arretxea Lastiri, NARBARTEN, Martxoaren 11an.

**HERIOTZAK**

Martin Jose Urkiola Telletxea Beran, otsailaren 14ean, 92 urte.

Anastasia Zapirain Estonba, Beran, Otsailaren 18an, 84 urte.

Miguel Irazoki Nesprias, Beran, Otsailaren 22an, 71 urte.

Francisca Telletxea Agirre, Lesakan, Otsailaren 28an, 96 urte

Alejandro Altzuri, Arantzan, Otsailaren 27an, 78 urte.

Fermin Dagerre Endara, Beran, Martxoaren 1ean, 21 urte.

Jesusa Maritorea, Berroetan, Martxoaren 3an, 81 urte.

J. Fco. Bikondo Etxenike, Elizondon, Martxoaren 6an, 74 urte.

Cristina Aleman, Erratzun, Martxoaren 11an, 89 urte.

Santiago Erramuzpe, Elizondon, Martxoaren 1ean, 68 urte.

Bernardo Ganboa Urroz, Sunbillan, Otsailaren 23an, 86 urte.

Marcelina Sanjurjo, Sunbillan, martxoaren 6an, 90 urte.

Daniela Karrikaburu Zelaieta, Oitzen, Otsailaren 28an, 73 urte.

Juanito Aleman, Donezteben, Otsailaren 28an, 68 urte.

Alejandro Aldaya, Beintza-Labaienen, martxoaren 9an, 89 urte.



**expert**

**OFERTA:**

**TELEFUNKEN SUPER-VHS  
BIDEO-KAMARA  
178.000 pztatan.**

Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77 BERA

**BORTZIRI**

Itzea 4, behea - BERA  
Tfnoa: 63 10 91

- \* Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- \* T.B., Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- \* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

## Baztango Gasna Kooperatiba:

«Merkatua ikusirik, kalitate oneko gasnaren aldeko apostua da geurea»

Harritzekoa izan badaiteke ere, inguru hauetan, baserritarren elkartzea ez da egunero ikusten den gauza; batez ere produkzio aferak tartean daudenean.

Halere, oraingo honetan behintzat, bakoitzak bere aldetik jo beharrean, zortzi baserritarrek elkarrekin saiatzea erabaki dute berriki. Horretarako, bertan duten lehengaia edo "materia primaz" baliatuz, ardi-esneaz alegia, ahalik eta gasnarik hoberena egin eta saltzen ahalegintzen ari zaizkigu. Dagoeneko merkatuko konpetentzia gogorra bada ere, ez da erraxagoa izanen hemendik urte batetara etorriko dena, eta jakina... beraien arma, kalitatea.



Kalitatea kontrolatzeko, astero-astero, ardi-esnea analizatu egiten dute laborategian

# h

orrelakotan egin ohi den modura, hasierako pausoak emateko, gisa honetakoa den bertze esperientzia bat ikusiz hasi ziren Baztango Gasna Kooperatibakoak. Horretarako, ordurako martxan zegoen "Orreaga" izeneko ikustera joan ziren, eta hura ikusirik, beraien martxan jartzeko falta zuten azkeneko ani-

moa bildu eta... lanera!

Lehen lehenik, Arizkongo Ordoki auzoan gasnategia egitea etorriko zen. Zortzi sozioak (hiru amaiurtar, hiru erratzuar, arraiotzar bat eta aniztar bat guzira) bildu eta auzolanean Baztandarra Pentsu Kooperatibaren ondoan dagoen Gasnategia eginez eta bitartean, beharrezkoa



Hilabeterik fuertenetan, otsailean eta martxoan, aldiro 100en bat kilo gasna egiten dute

zuten makineria erosiz hasi ziren.

## Lantegiaren antolamendua

Gaur egun, hamabi baserritatik biltzen dute ardi-esnea. Gutxi gora-behera, azaro-abendu aldera hasi eta maiatzako hilabetea pasatu arte irauten du urteroko sasoiak, sei hilabete. Hilabeterik fuertenetan, otsailean eta martxoan alegia, 500 litro esne pasatuxek biltzen dute aldiro eta horiekin, 100en bat kilo gasna aterako dira.

Honetan, esnea biltzen eta gasna egiten erran nahi baita, bi sozio aritzen dira sei hilabetetan. Goizeko 9,30etarako esne guzia bildu eta eguerdiko ordu bietarako gasnak egin eta hurrengo egunean berriro prozesua martxan paratze-ko prest utziko dutenak.



## Merkatua irekitzea ez da lan erraxa!

Gasna egiteko prozesuan bi sozio aritzen baldin badira, egiten duten gasna guztiak saltzen bertze hirugarren bat ariko da urte osoan zehar. Bistan denez, honetan ere, lan-espezializazioak badu eraginik, izan ere lan-orduen errentagarritasuna aise haundiagoa bihurtzen

omen da horrela. Sozio den Patxi Etxeberriak zioenez, «*produkzioa haunditzeko beharrezkoa da salmenta planifikatzea, alferrik baita gasna gehiago produzitzea gero saltzerik ez badago*».

Salmentarako lantzen duten eremua, batez ere, Bidasoaldeko herriak, Donostialdea eta Iruñaldea mugatzen omen da. Eta

eremu honen barnean, ba omen dago ezberdintasunik ere: erraite baterako, «*Iruñaldearekin konparatuz, Donostialdean aise gasna gehiago saltzen dugu. Dударik gabe, Donostialdean nahiago izaten dute kalitate oneko gasna*».

## Kalitate ona demostratzeko, horra etiketa!

Ageri denez, zerbait baldin bada egitan kezkatzen diena, hori, kalitate oneko gasna egitea da dudarik gabe. «*Astero-astero, baserri guzitako esnearen muestra bat eramaten dugu laboratoriora analizatzera. Analisisetan, esnearen konposizioa eta bakteriologiari buruzko datuak ematen dizkigute*».

Bertzalde, egiten duten gasna komertzializatzerakoan, bi izen ezberdinez baliatzen dira. Zati bat, Idiazabal markarekin egiten dutena, Amaiur izena eramanen du eta bertze zatia, beraien kontura saltzen dutena, Baztan izenarekin saltzen da.


## Gaur egun, baserrietan gasna dexente egiten da

Ardi-esnearen prezioa hain baju egonik, etxetan gasna egin eta saltzen hasi dira hainbatetan. Kopuruak haundiak ez badira ere, «*irauten duen bitartean, hori ere sumatu egiten da*» zioten gure solaskideek.

JOXEMANUEL IRIGOIEN

## Bortzirietako Euskaltegiak proiektu berri bat du eskuartean

Horretarako etxe bat erosia du Lesakan eta egokitze lanak hasiak dira iada



«Euskarak bizirik segitzekotan, bertze tokitan ere gisako proiektuak beharrezkoak direla uste dugu»

Duela bospasei urte Bortzirietan helduen euskalduntze eta alfabetatze zereginetan hasi zenez geroztik nabaria izan da euskaltegiaren eragina gure herrietako bizitzan. Hainbat gauza; ekitaldi, hitzaldi, uda ikastaro, bidai, euskal besta, etab... antolatu dituzte urte hauetan.

Berriki, Bortzirietako Euskaltegiak, IKA-ko bertze euskaltegi guzien laguntzarekin, Lesakako Matxinbeltzenea deritzan etxea erosia du eta proiektu berri bat daukala agertu du komunikabideetan. Etxe horren egokitze lanak ere hasiak direla ohar daiteke hurbiletik pasatzen den edonor. Guzi honen berri hurbilagotik izatearren, euskaltegiko ordezkari batengana, Mikel Legarrarengana jo dugu solasalditxo bat izateko asmoz. Hona lllabur - lllabur berak erran diguna.

**Z**ein da eskuartean duzuen proiektuaren mamia eta zein dira dituzuen helburuak?

**Mikel Legarra:** Gu hemen euskalduntze eta alfabetatze ahaleginetan hasi ginenean argi geneukan beharrezkoa zela erreferentzi puntu bat izatea. Haurren hezkuntza euskaraz burutzerakoan erreferentzi puntua ikastolak izan diren bezala, helduen euskalduntzean ere zerbait beharrezkoa zela iduritzen zitzaigun. Duela bortzi urte ahalegin batzu egin genituen Beran euskal etxe bat eraikitzearren, zerbait lortu ere egin genuen, baina ez zen deusetan konkretatu. Orain Lesakan agertu zaigu etxe bat erosteko sibiliteatea, eta IKAko euskaltegi guzien laguntzarekin eta kreditu baten bidez erosi egin dugu.

Zein diren helburuak? Ikusi behar da helduen euskalduntze munduan alde batetik beharra eta bertetik hornitzen ez den demanda badagoela. Hau da euskalduntze munduan dagoen beharra eta demandari instituzio publikoak ez diotela erantzuten eta guk nolabait hutsune horren



eskeintza hornitu nahi dugula. Orduan, guk aukera irekia eta zabala eskeini nahi dugu euskaldundu nahi duen guziak posibilitatea izan dezan etxe horretan antolatuko diren barnetegi eta ikastaroetan euskara ikasteko. Bertzetik, Bortzirietako euskaltegiaren egoitza ere hor joanen litzateke eta uste dugu honen bidez lortuko dugula irakasleen iraunkortasuna eta ondorio bezala, irakaskuntzaren maila hobetzea. Eta azkenik, helburu nagiz inportantea bezala euskal txokoa eraiki nahi dugu, euskal kulturaren suspertzaile izanen litzatekeen biltoki bat. Gure zonaldeko euskalzale guziak elkartu eta batera lanegiteko bilgunea.

**t-t: Zehazki erranda, nola banatuko da etxe hori?**

**M.L.:** Lehen erran dugun bezala beheko solairuan euskal txokoa izanen litzateke eta horretarako aproposa iduritu zaigu osatu bat eraikitzea. Ondoan sukaldea eta jangelajoanen lirateke barnetegian dauden eta bertara etortzen diren jendeak otorduak egiteko. Jangela hau, areto haundia izanen da eta balioko du edozein ekitaldi antolatzeko. Alde horretatik euskaltegiak kanpo, kultur munduan dabiltzan bertze erakundeak ere izanen lukete areto hau erabiltzeko posibilitaterik. Lehen solairuan, berriz, Bortzi-



«Aukera zabala eta irekia eskeini nahi dugu. euskara ikasi nahi duenari bidea erraztuz»



rietako euskaltegiaren bulegoak, materialeak gordetzeko gelak eta ikasgelak joanen lirateke. Bigarren solairuan, barnetegian egun osoz ikasten ari direnentzako logelak, bere egongela, liburutegia, etabarrek eta hirugarren solairuan alberge antzeko zerba

tolatu nahi dugu. Alde batetik udan antolatzen diren ikastaroetako jendeak lo egiteko balioko du, bertetik gurasoak euren umeekin asteburuak pasatzeko aproposa izan daiteke eta azkenik, egun pasa datozkeen edozeinentzako lo egiteko aukera emanen

lute.

**t-t: Ageri da proiektu honen kostea haundia izanen dela. Nola espero duzue betetzea?**

**M.L.:** Erran behar da 50 milioitik 60 milioira bitarteko kapitala mogituko dela proiektu honetan. Etxearen erosketa 25 milioi kosta da eta hori egokitzeak bertze horrenbertze edo gehiago balioko du. Etxearen erosketa IKA-ko euskaltegi guzien artean burutu dugu. Orain, gainerakoa geratzen da. Horretarako ate aunitz jotzea pentsatzen dugu eta horretan ari gara. Alde batetik instituzio publikoei luzatuko zaie eskaria (Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, udalak, etabar...).

Bertetik euskararen alde lanean ari diren zenbait elkarteri eta azkenik pertsona batzuri ere luzatuko zaio dirua aintzintzeko eskaria gero itzultzeko asmoarekin.

**t-t: Noizko izanen da martxan?**

**M.L.:** Gauzak behar bezala baldin badoaz eta gibelpenik ez baldin bada, aurtengo udan martxan jartzea nahi genuke. Horiek dira gure asmoak bederen. Hauxe da bada guzia. Norbait bere laguntza eman nahi balu, badaki nora jo. Eta baten bat zalantzatan baldin badabil oraindik, utz bitza dudak alde batera, gero ez da damutuko eta.

PATXI LARRETXEA

## Lesakako Arkupe Pilota Elkarteak, pilotazaleen elkargunea

*Sei urtetan, hainbat herri txapelketa antolatu eta bertze horrenbertzetan parte hartu du*

Aintzinako kirola dugu pilota EuskalERRI osoan. Lesakan ere ohituraz zaharrenean artean aurkitzen da, baina duela sei urte arte, ez zegoen arlo honetan lan egiten zuen talderik, pilotari, arkupea ematen zion elkarterik.



Txapelketa aunitan parte hartu dute Lesakako pilotariak.

1985. urteko Otsailean sortzen da Lesakako Arkupe Pilota Elkarteak, bertan pilotazale lagun talde bat bilduz, herrian kirol honek bizi zuen egoera zaila konpontzeko asmoz. Ordura arte egiten ziren pilota arloko lanak, (Salbador Etxeparek zeraman pilota eskola, txapelketak, etabar...) elkarre honen ardura bihurtuko dira.

Urte horretan bertan, Lehenengo Herriko Paleta Txapelketa antolatuko dute, bikoteka, gomazko pilota modalitatean, bertan 32 pilotariak parte hartuko

duklarik.

Honetaz gain, Lesakako pilotariak hainbat txapelketetan hartuko dute parte. Bertzeak bertze, Almanoz, Senper, San Migel, Otxoteko, Taberna eta Irigoien pilotariak Nafarroa ordezkaturiko dute GVN txapelketan jubenil azpiko mailetan.

1986an, bertze txapelketen artean, I Herriko Paleta txapelketa larruzko pilotarekin antolatuko dute, bertan 5 bikotek parte hartuz. Hainbat txapelketa jokatu zuten EuskalERRI osoan, guztietan ere maila

ederra erakutsiz (Lopetegi memorialean, adibidez, 4 pilotari aurkeztu eta guztiak finalera iritsi ziren).

1987. urteari dagokionez, Emakumeentzako lehen Paleta-goma txapelketa antolatu zen, bertan sei bikote parte hartuz. Geroztik urtero egin da txapelketa hau, urtetik urtera bikote gehiagoren parte hartzearekin.

### Emaitza onak

Hainbat txapelketetan parte hartu dute Lesakako pilotariak eta ezinezkoa litzateke, denak banan banan agertzea, baina iazko

emaitza batzuk aipatzearen, Bidasoako txapelketan txapeldun, Baztango txapelketan, infantil eta jubeniletan txapeldun, Nafarroako Neguko txapelketan kadeten txapeldun eta infantiletan bigarren, Josetxo Ezkurra memorialean, jubenil eta afizionalitatean txapeldun eta infantiletan azpitxapeldun izanen liriteke.

### Beharrezko infraestruturak

Horrelako elkarre bantentzat ezinbertzekoa suertatzen zen, biltzeko egoitza baten jabe izatea



Emakumeentzako bigarren paleta-goma txapelketako partaideak.



Frontoi berrituaren inaugurazio eguna.

eta duela bizpahiru urte lortu zuen gaur egun duen soziedadea.

Aipagarria da ere, 1988an moldatu zela herriko frontoia.

1920. urtean eraikitako frontoiari, 1970ean eman zitzaion teilatua, eta duela hiru urte, guztiz estali zen, bi pisutan gradak paratuz. Inaugurazio ekintza arrakastatsuan, herritarrek gainezka bete zuten frontoia, bai profesional eta bai afizionatu mailako partiduak, aurrekua eta Iñaxio Errandoneak egin zuen ohorezko sakea ikusteko.

## Etorkizuna

Joan den Otsailaren 9an egindako asanbladan aukeratu zen 78 bazkide dituen elkarte hau zuzenduko duen junta berria, Juanito Telletxeak lehendakari postua eta Juan Mari Maiak lehendakariordearena beteko dutelarik. Beraz, elkarte bezala, jarraipena ziurtatua dago. Pilotarien aldetik etor daitezke arazoak, baina pixkanaka ateratzen ari dira gazteak. Adibide gisa, Miguel Ramon Irigoienek berriki lortu duen GRAVN txapelketa, eskolarteko mailan.



## Herri Kirol txapelketetan apuntatzeko epea zabalik

Nafarroako Herri Kirol Federazioak ireki du jadanik, aurtengo Herri Kirol txapelketan parte hartzeko izen-emate epea.

Herriz herriko txapelketarako epea hilaren 23an bukatzen da, lehenengo mailako aizkolari txapelketarena Ekainaren 23an, bigarrenkoa Ekainaren 9an, sokatirarena Maiatzaren 25ean, lehe-

nengo mailako arpanlariena, mutiletan Apirilaren 28an eta nesketan Maiatzaren 26an (bigarren mailakoak bezala), txingarena abuztuaren 11an, segalariena Maiatzaren 19an, harrijasotzaileena Uztailaren 21ean, eta gurdi, lasto, zakulari, ingude eta kozkor txapelketena, Maiatzaren 26an bukatuz.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Panttaleon, Arantzako arpanlaria.**

Berak dioen bezala zuhaitzak landatzea kirol mota polita dela eta jende gehiagok praktikatuko beharko lukeena. Ea egia den!



**Beti Gazte** futbol taldeko jokalaria.

Kirol mailan hobetzen ari badira ere, azken eguntan afizioa arraroa hartu dutelako: kotxearekin hankaz goiti joatearena, hain zuzen. Gidatzen ere ikasi beharko duzue!

## Senda belarrak: Intsusa

**L**au edo bortz metrotarainoko altuera har dezakeen zuhaitza hau hagitz ugaria da gure eskualdean, oihanetan aurki daiteke, erreka bazter eta bide ondotan. Gazteak diren adarretan azala berdea izaten du eta grisa ia zahartuak diren adarretan. Bere hostoak zartatuak izaten dira eta usain eza-tsegina botatzen dute.


Intsusaren lore txuriak usain goxoa botatzen dute eta itzalpean eta leku haitzetsuan idortuz gero, oraindik goxoagoa.

Intsusaren fruituak, ilarbiaren neurriko pottoko beltza batzu izaten dira.

### Propietateak

**Loreak:** Pixeragilea, izertarazlea, goxagarria, erreuma eta haziduraren aurkakoa, garbiarazlea, sukarra egoerak hobetzaileria...

**Hostoak:** Izertarazleak eta kakaeragileak.



Intsusa: Sambucus Nigra L.

**Fruituak eta bigarren azala:** kakaeragileak.

### Erabilera

**Barnekoa:** Loreak; ur baso bakoitzari irakiten dagoenean bi kutxare haundi intsusa lore beteta bota, sua itzali, hamabortz

bat minutu estalita eduki eta infusio bezala hiru aldiz egunean otordu nagusien aintzinatik hartu eta aproposa da arnasartzeko organuen infekzioak, sukarra egoerak, gripea, erreuma, etab... sendatze-

ko.

Hostoak; sabelidortasuna sendatzen laguntzeko ona da.

**Kanpokoak:** Orohar, hazidura eta inflamazioak sendatzeko balio du. Erredurak sendatzen ditu enplasto edo pomada bezala erabilita. Konjutibitisa sendatzen laguntzen du, begiak intsusa lorearen urarekin garbituz gero.

Hostoak; Amorranak izanez gero, kataplasma epelak erabiltzen dira.

•Intsusaren fruituak artileari more kolorea emateko erabiltzen dira eta hostoak berdea lortzeko.

•Intsusak intsektuak eta zenbait animali urruntzeko ahalmena badu.

•Gauza bitxia bezala, zenbait sinismena dela, San Juan bezperan bilduz gero, propietate bereziak dituela intsusak.

ALBERTO ITURBE  
Medikua

# GAIA

OSASUN-DENDA  
BELARRAK-DIETETIKA  
EDERGAI NATURALAK

Bittiria 6, Tfnoa:637410 - LESAKA

## LUR APAL

### MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

## Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, eta Sarako 4.200 etxetara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

## Haur heziketa

Hezkuntza sistemaren lehenengo mailan, haur heziketak 6 urtearte hartzen du bere barne. Bi ziklotan taldekatzen da, lehenengo zikloa 3 urte bitarte eta bigarrena 6 urtetaraino.

### Ezaugarri orokorrak

- Haur heziketa ez da derrigorrezkoa.

- Neska-mutilen garapen fisiko intelektual, sozial eta gizarte ohiturekiko hedapenera lagunduko du.

- Irakaskuntza-metodologia, ekintza eta jokue-tan, kidetasun eta konfiantza duen ingurune batean oinarrituko da.

- Haur-heziketarako zentruak gurasoekin elkarlanean ariko dira, hezkuntza maila honetan hauen funtsezko ardura



kontutan edukitzeko asmotan, beti ere.

- Administrazio publikoak eskatzen duen haur-eskolaratzea segurtatzeko, behar adina leku izatea garantizatuko dute.

### Helburua

Lehenengo zikloan,

mugimenduaren eboluzio, gorpuzta zaintzen ikasteari, hizkuntzaren lehen adierazpen, elkarbizitza eta gizarte erlazioaren arau eta bertako inguruaren aurkipenari arreta egingen zaio.

### Bigarren zikloan,

haurrak hizkuntzaren erabilera egiten ikas dezan,

bizi den ingurunearen ezaugarri fisiko eta soziala aurkitzeko, norberari buruz irudi baikor bat sortzeko eta funtsezko autonomia pertsonalaz jabetzeko portaera-ohiturak lortzeko behar direnak egingen dira.

### Hedatu behar diren gaitasunak

- Norberaren gorpuzta eta ekintza ahalmenak ezagutzea.

- Bertzeekin, komunikazio modu ezberdinen bitartez erlazioatzea.

- Bere natur, familia eta gizarte ingurunea ikusi eta arakatztea.

- Bere eguneroko ihar-duketa arian-arian halarako autonomia lortzea.

LAMIA TALDEA

## SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



- **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

- **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

- **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

- **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

### PRAKTIKAK:

Aste bat Eskolan, eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

### Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

**EUSKARAZ** eta **ERDARAZ**

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

• **Lesakan baserri bat** herritik 2 kmtara., bizitzen jartzeko moduan eta 30.000m<sup>2</sup> maldan. Informazioa: 451518 Ezkalo.

• **Donezteben pisu bat**, 90m<sup>2</sup>koa, osotara ekipatua. 18m<sup>2</sup>ko ganbara. Propano kalefakzioa, 3 logela, egongela, 2 bainugela. Ezin hobeki orientatua. Informaz.: 451518 Ezkalo.

• **Elizondo** edo inguruan etxe zahar bat erosiko genuke. Dei 943-603229ra.

• **Baztanen liburudenda** transpasoan. Urteko salmentak demostragarri. Tfnoa: 592245 (egunez), 450730 (arratsetan).

## Lana

• **Elizondon**, haurrekin, etxeko lanetan edo komertzioaren batean lan egiten nuke. Tfnoa.: 580827. M<sup>3</sup> Angeles-etaz galdetu.

• **Emakumea astegunetan lanak egiteko prest.** Dei 63 12 35 tfnora.

• **Astean zehar** Beran, Lesakan, Igantzin edo Etxalarren edozein lan egi-

nen nuke. Esperientzia haurrekin eta dendetan. Tfnoa: 45 05 28.

• **Emakumea lanean aritzeko prest** Donezten astean zehar. Tf: 450730.

## Salerosketak

• **Zezen gorri bat** salgai. 5 urtekoa. Tfnoa: 615019. Eratsun.

• **“Desbrozadora” bat** salgai dago Arizkunen. Berri-berria, batere ibiltzekoa. Deitu 453037ra 3etatik aitzinera.

• **Esne tanke** bat salgai dago, ALFA-LAVAL markakoa 445 litrokoa. Kondizio onean dago. Tfnoa: 599176 (Urdazubi).

• **Alfa Romeo 33 1.5, 4** erruedetan trakzioduna salgai. Kolorea, gris metalizatua. 3 urte eta 37.000 km. NA-U, okasiokoa. 725.000 pzta. Tfnoa. 451518.

• **Renault Express** Conby, salgai. Gasoilekoa, urdina, 4 urte (NA-S). 725.000 pzta. Tf. 451518.

• **Ordenadorea** salgai. INVES PCX10, 3,5eko bi disketerakoa. Inprimaga-

ilua Olivetti eta WordStar programa. Berri berria. 115.000pzta. Tf: 634126

## Denetarik

• **Edozein** klasetako mogleak erosiko nituzke. Etxez etxe pasatzen naiz eta eskura ordaindu. Diskrezio osoa. Tfnoa 451518.

## Harremanak

• **Andoain** aldera ihes egin zuen behiari, gorantziak emanaz; eta bila joan baino lehen itzultzeko esanaz: Leitzako L.E.T. taldeak.

• **Zein** erru dute behiek adarrekin sortzen direla. Erru gehiago dute gizonek, jartzeko sortzen direla. Berako J.S.-rentzat.

• **Lesakako** Edurneren-tzat: Sunbillako mutil batetaz erotuta zaudela, badakigu denok, ea animatzen zaren berari eskatzera. Aupa! Zure lagun bat.

• **14 eta 16 urte** bitartean badituzu eta Leitzako batzuen lagun egin nahi baduzu, honen berri Merkatu Ttikian eman. Berdin zai-gu neska edo mutila izatea. L.E.T. taldea.

• **Ezkurrako Mikel** eta Martziali: Ikusi zintugunetik ahaztu ezinik gaude, edozein igandetan Atxaspin ikusiko gaituzue. Gu zuengana hurbilduko gara. Bi neska lesakar.

• **Joxe Mari** (Isponda) zutaz maiteminduta nago, zure begi polita hoietaz. Bordatxon ikusiko gera (Iturengo neska bat). Muxu haundi bat.

• **Gurutz** izeneko mutil polit hori: goizueta neska gazte batek bihotzez maite diola eta musu bat bidaltzen dio.

• **Mugaireko** Izaskunentzat. Pixkat burutik joana zaude, baina ederki konpontzen gara. Muxu bat. Zure lagun maitea.

• **Gartzaingo** Ainhoarentzat: Herriko bitxi hoiberena zara. Segi horrela. Muxu bat. I.

• **Arizkungo** hiru mutil ederrenei: Gure bihotzean betiko zaudete. L.L.M.

• **Lesakako** Iban G.A.ri, mila muxu eta ea noizbait elkar topatzen dugun. Admiradora bat.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....  
.....  
.....

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



# AMAIUR

**sukalde eta  
bainu  
altzariak**

Rosa Seminario 13  
Tfnoa.: (948) 45 04 00  
**DONEZTEBE**

**Vegasa®**



## ALMACENES ETXANIZ, S.A.



**Lesakako  
Iturria anaial**

**Irunen, zure bainurak  
behar dituzun osagar  
guziak: griferiak,  
manparak, mobleak,  
gres eta zeramikak**

Juan Arana, 3  
Tfnoa: (943)  
61 17 67  
**IRUN**